



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.04.09

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko apirilaren bederatzian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Iñigo Alonso Sarasibar	
	1. Aurreko akta onartzea.
Idazkaria:	2. "6.1. San Kosme eta San Damian" azpiesparruko egikaritze-hitzarmena. Behin betiko onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	
Kontuhartzailea:	3. Enplegunea 2017-2018 programaren babesean kontratatzeko laguntza bertan behera uztea : "E.M.C.B" enpresa.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4. 10/2018 eta 11/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko martxoaren 26an egindako batzarraren akta aztertu zen. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. "6.1. SAN KOSME ETA SAN DAMIAN" AZPIESPARRUKO EGIKARITZE-HITZARMENA. BEHIN BETIKO ONARTZEA.

2018ko urtarrilaren 22ko Gobernu Batzarrak "6.1. San Kosme eta San Damian" azpiesparruko egikaritze-hitzarmen proposamenari hasierako onarpena eman ondoren, 20 egunez jendaurrean jarri zen. Iragarkia 2018ko otsailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik egon.

Hirigintzako teknikariak honako txosten hau egin du:



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSAKO "6.1 SAN KOSME ETA SAN DAMIAN" AZPIESPARRUKO
EXEKUZIO UNITATEKO KONTZERTAZIO HITZARMENAREN BEHIN
BETIKO ONARPENA

Aurrekariak

2017ko azaroaren 28an, Bista-Alai SA merkantilaren izenean eta ordezkartzan, Administratzaile Solidario gisa, ari den Juan Cruz Soraluze Echanizek "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena aurkeztu du, tramitatua eta behin betiko onartua izan dadin.

Azpiesparru hau "6. Santa Klara" Hirigintza Esparruaren barruan dago antolatuta hirigintza aldetik Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, zeina 2009ko martxoaren 3an onartu zen behin betiko (2009ko martxoaren 31eko GAOa)

Hiri Ordenazioko Plan Orokorrean jasotako aurreikuspenak garatu eta doitzeko, azpiesparruko Xehetasun Azterketa formulatu zen, eta 2013ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuran onartu zen, baldintza batzuekin, behin betiko. Horretarako, Testu bategin bat aurkeztu behar izan zen, eta irailaren 24ko 2013/1301 Dekretuaren bidez onartu zen (206. GAOa, 2013ko urriaren 29koa).

2017ko urriaren 30ean, Gobernu Batzordeak behin betiko onetsi zuen azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa, zeinetatik ondorioztatzen den azpiesparruarekin bat datorren exekuzio unitate bat, eta kontzertazioa ezartzen da jarduketa sistema gisa.

Bista Alai SA izanik azpiesparruaren barruan dauden lursailen jabe bakarra, 2017ko abenduaren 20ean aurkeztutako informazio-ohar soilen arabera, "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena aurkeztu zuen tramitatua, onartua eta formalizatua izan zedin.

2018ko urtarrilaren 22ko Gobernu Batzarrak hasierako onarpenera eman zio kontzertazio hitzarmen proposamenari eta 20 egunez jendaurrean jarri zen.

2018ko martxoaren 19ko udal idazkariaren ziurtagiriaren arabera argitara egon den denbora epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Analisisa.

2018ko urtarrilaren 22ko Gobernu Batzarrak hasierako onarpenera ematearekin batera honako baldintza ezarri zitzaion behin betiko onarpenera eman ahal izateko:

Urbanizazio zamen zenbatekoaren % 7ko abala aurkeztea. Hau da, 56.907,06 €ko abala.



TOLOSAKO
UDALA

2018ko otsailaren 27ko dataz Juan Carlos Soraluze Echanizek, Bista Alai, Saren izenean aipatu diru kopurua jasotzen duen abala aurkeztu zuen, Tolosako Udalak ezarritako baldintza betez.

2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorrira, Gobernu Batzarrak hasierako onarpena eman eta gero hitzarmen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Ondorioz, erakustaldi publikoa bukatu ondoren, hitzarmena behin betiko onartu eta sinatu egin behar da.

Ondorioa

Aurreko guztiaren arabera, hau da proposamena:

Lehena.- "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Olatz Peon Ormazabal alkatea ahalordetzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hau guztia kontuan harturik, eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- "6.1 San Kosme eta San Damian" azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Hitzarmenaren proposamena behin betiko onartzea.

BIGARRENA.- Olatz Peon Ormazabal alkatea ahalordetzea, aipatutako hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Hirigintza departamentuari ematea.



TOLOSAKO
UDALA

3. ENPLEGUNEA 2017-2018 PROGRAMAREN BABESEAN KONTRATATZEKO LAGUNTZA BERTAN BEHERA UZTEA : "E.M.C.B" ENPRESA.

- I. 2017ko abenduaren 15ean, Tolosako Udalak *Tolosa eskualdeko merkatu arruntean langabetuak kontratatzeke diru-laguntzaren deialdia* argitaratu zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- II. Gobernu Batzarrak, 2017ko abenduaren 26ean, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen : Enplegune 2017ko 2 eta 3 motetako diru-laguntzen banaketa onartzea eta 6000 euroko diru-laguntza gordetzea Errotatxo enpresarentzat,
- III. 2017ko abenduaren 29an, E.M.C.B enpresaren izenean, ENPLEGUNEA 2017-2018 PROGRAMAREN BABESEAN KONTRATATZEKO LAGUNTZA (Erregistro zenbakia 11072) aurkeztu zuen E.G. langilea kontratatzegatik, hain zuzen ere, *Tolosa eskualdeko merkatu arruntean langabetuak kontratatzeke diru-laguntzaren deialdiaren 8. artikuluan* eskatzen zena .
- IV. Gobernu Batzarrak, 2018ko otsailaren bederatzian, onartu zuen, besteak beste, E.M.C.B enpresari 1. ordainketa egitea, hau da, 3.300 euro (% 55).
- V. 2018ko martxoaren 26ean, E.M.C.B enpresak izandako arazo ekonomikoen ondorioz, E. G. langileari dagokion kontratua bertan behera gelditu dela adierazi dio Udalari.

Aurreko guztia kontuan izanik, eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosa eskualdeko merkatu arruntean langabetuak kontratatzeke 2017/2018 urteetarako egitasmoaren barruan E.M.C.B enpresari onarturiko laguntza bertan behera uztea.

BIGARRENA.- Lanbide zerbitzuari 2017ko abenduaren 27tik 2018ko martxora bitarteko dokumentazio aurkeztea eta zerbitzu horren erabakiaren zain geratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunei, Kontuhartzaitzari eta Enplegu departamentuari.



TOLOSAKO
UDALA

4. 10/2018 ETA 11/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **10/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **78.264,77 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 10/2017 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **11/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **48.240,43 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 11/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA